

11 - MIRANDA DE EBRO - BERGONDA

(2017-3-25)

EZAUGARRIAK

DISTANTZIA: 20,5 km.

DESNIBELA: + 280m. / - 269m.

DENBORA: 5 or.

Arabako muga egiten duen zonalde industrialia saihestu nahian aurreko etapa Mirandan amaitu zen. Etapa honetan, lehenengo 4,5 kilometro Burgoseko lurretatik ibiliko gara, lur arabarretara iritsi aurretik.

Etapa Miranda de Ebron hasten da (467m.) Centro Sagrados Corazones inguruko parkiñan. Udaletxeko plazatik pasako gara eta Ebro ibaia zubia gurutzatu ondoren, ibai bazterretik igarotzen den GR 99 hartuko dugu.

Hortik gutxira hiria atzean utziko dugu eta GR 99 laga eta ibai ondotik jarraituz zuhaizti batean sartuko gara eta hortik Central Hidráulica de Cabriana-ra irtengo gara. 2,7 km

Ibaia utzi eta BU-535 errepidera irtengo gara; berriz ere GR 99 bidean gaude eta ibilbidearen gehiengan hortik joango gara, Larrazubi ingurura arte. AP-1 gainetik gurutzatuko dugu eta errepide estu bat hartuz Araban sartuko gara, eta hortik gutxira Komunioi herrira iritsiko gara (490m.) 5,5 km.

Soro sail zabaletan sartuko gara eta trafiko gutxiko errepide estu batetik Saratsu herrira iritsiko gara (528m.) 7,7 km.

Pista eta bidezidorretatik Leziñana herrira iritsiko gara (540m.) 10 km.

Herriko irteeran errepide txiki bat hartuko dugu eta aurrerago utzi egingo dugu bidezidor bat hartzeko, 150 metroko zati bat behintzat galduta duena goldeen erruz (izkinatik joango gara) eta Caicedo-Yuso herri txiki batera iritsiko gara (560m.) 11,8 km.

Puntu honetatik, soroetatik eta baso txikietatik barrena, pista eta bidezidorrak hartuta, Fontetxa herrira iritsiko gara (490m.) 14,7 km.

A-2122 gurutzatuko dugu eta berehala GR 99 bidea utziko dugu Ebrora hurbiltzeko eta ibai bazterretik Larrazubi herrira iristeko (470m.) 16,9 km

1,5 kilometroan A-2122 errepidetik ibili beharko dugu (trafiko dezentea duen errepidea) Omecillo ibai gaineko zubia gurutzatu arte, eta pista bat hartuko dugu, Bergonda herrira eramango gaituena (480m.) 20,5 km.